



# BIOLENTZIARIK GABE, HOBETO

**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna**

Azaroak 25 inguruko egunean ikastetxean egiteko planteatzen diren ekintzak:  
irakasleekin, ikasleekin eta familiekin.

# Helburuak

- Irakasleekin eta ikasleekin indarkeria sexistarekin zerikusia duten eguneroko interakzioei eta egoerei buruz gogoeta egitea.
- Lekukoan paperari buruz sentsibilizatzea.
- Genero-indarkeria prebenitzea.
- Azaroak 25ean, hezkuntza komunitate osoaren erantzun trinkoa ikustaraztea indarkeria sexistaren kontra.

# Jarduerak

1. Haur eta Lehen Hezkuntza  
Azaroaren 25 inguruan egiten den proposamena jorratzea
2. ESO  
*Biolentziarik gabe, hobeto* Testua irakurri.  
Indarkeria sexistarekin zerikusia duten eguneroko interakzioei eta egoerei buruz gogoeta egitea.
3. Irakasleria  
*Biolentziarik gabe, hobeto* Testua irakurri.  
Indarkeria sexistarekin zerikusia duten eguneroko interakzioei eta egoerei buruz gogoeta egitea.
4. Familiak  
*Biolentziarik gabe, hobeto* Testua irakurri.  
Indarkeria sexistarekin zerikusia duten eguneroko interakzioei eta egoerei buruz gogoeta egitea.
5. Ekitaldia

# Haur hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

Genero biolentziaren prebentzioaren inguruan dauden ikerketek, jazarpen bat gertatzen denean, aintzakotzat hartzen dute inguruan dauden pertsonen erantzuna edota erantzunik eza. Hori dela eta, laguntasunean heztea oso garrantzitsua da eta honen inguruko gogoeta txiki-txikitatik hastea.

## Proposamenak:

### Jarduerak

#### 1. Zergatik Azaroak 25?

Umeei azalduko zaie egun hori nondik datorren, eta horrelakorik ez gertatzeko, ikastetxean tratatu onen aldeko kanpaina batean parte-hartzea proposatuko zaie.

Azaldu eta gero gelan ondorengo esaldien inguruan debate bat egingo da:

- *Lagunak oso garrantzitsuak dira, baina zer egingo dute zerbait gertatzen zaidanean, babestuko naute edo “matón” delakoaren ondoan jarriko dira?. Nik zer egin dezaket nire lagunari zerbait egiten diotenean?.*
- *Gaizki tratatzen nauenak, jotzen nauenak, maite nau?, Nire laguna izan daiteke?.*

#### 2. Lelo bat sortzea: marrazki, ikurra, logotipo bat ... egitea sortzea:

Egunaren istorioa ezagutu eta gero, kanpainan parte hartzeko lelo baten inguruko lana planteatuko da.

Gaiak: Indarkeriaren kontra eta genero-indarkeriaren kontra, batez ere.

Adinaren arabera:

- Lelo bat asmatu edo sortu.
- Lelo bat ematen zaie.

Adibidez: “Maite nauenak ondo tratatzen nau BETI”.

Leloaren inguruan gogoeta bat planteatu dakieke.

Aukeratu eta gero, leloarekin lotuta, umeei, mailaren arabera, honelako ekintzaren bat egingo dute:

Pankarta; Horma irudiak, Plastikazko lanak; Power point-ak; Kanta (rap modukoa); Bertsoa; Marrazkia; Bideo bat; Dantza bat...

### **Lelo aukeratu**

Ikastetxean lelo bat aukeratuko da eta horretarako geletan sortutako guztiak Txoko Morean, pasabideetan edo beste toki batean erakusgai jarriko dituzte. Gero, ikastetxeak erabakiko du lelo bat aukeratzeko prozedura eta iritziak.

# DBH

## Testua irakurri

### Genero biolentziarik, hobeto

Emakumeek, batik bat, adingabe, nerabe eta gazteek pairatzen duten indarkeria, lehenasunezko gaia da hezkuntza-komunitatean. Delitu bezala ezagutzen diren salaketen mota biek (genero-indarkeria eta sexu-erasoa) azalerazten dituzten datuek gure arreta bereganatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, 2015. urteko urtarril eta abuztuaren artean, 759 salaketa jaso ziren 14 eta 30 urte arteko emakumeen aldetik, jasotako salaketen %29 izanik<sup>5</sup>. Salaketa jaso dutenen erasotzaileen kasuan, %22a 14 eta 30 urte bitarteko adina dute. Sexu-erasoekin lotutako salaketei dagokienez, adin tarte horretako eta 14 urte baino gutxiagoko biktimen portzentajea %74ra igozen da. Adin hauetako erasotzaileen kasuan, portzentajea %19koa da. Eta hauek identifikatutako eta salatutako indarkeriaren datuak baino ez dira, proportzio txiki bat baita, kontuan hartzen badugu badagoela azalerazten ez den indarkeria edo lagunei bakarrik adierazten zaiena.

Eskola ez da bakarrik ikaskuntzan eta garapen kognitiboan laguntzen duen espazioa; garapen emozionala garatzeko espazio erreal eta sinbolikoa da, baloreak jasotzeko, eta eskola barruan zein kanpoan jasotako baloreak zalantzan jartzeko lekua ere bada, bizitzeko modu ezberdinak alderatzeko espazioa, ikastekoa, zaintza eta enpatia lantzeko lekua. Gainera, espazio honetan pertsonen arteko erakargarritasunaz hausnartzen da, adiskidetasun harremanak eta afektibosexualak sortzerako orduan ezaugarri eta eredu ezberdinek zer nolako eragina duten aztertzen da; eskolan taldean bizitzen ikasten dugu.

Eskolan ere indarkeria forma ezberdinak gerta daitezke: umiliazioak, bultzadak, kolpeak, bazterketa, jazarpena... eta horregatik guztiagatik, eszenatoki aproposa da ume eta nerabeei irakasteko euren burua eta besteena defendatu behar dutela, mina eragiten dutenak geldiarazi behar direla, mota guztietako ezberdintasunak errespetatu behar direla eta ezberdina dena ez dela baztertu behar. Eskola, sozializatorako espazio bezala, indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzeko sozializatorako espazioa ere izan behar du.

## Jarduerak:

1. Gelan testuari buruzko tertulia.
2. Ondorengo egoerei buruz gogoeta egin:
  - a. Banaka
  - b. Taldeka

Jazarpenak, indarkeriarekin zerikusia duten egoerak, interakzioak edo Indarkeria justifikatzen laguntzen duten interakzioak.	Deskripzioa. Egoera zehaztu eta definitu	Zer egin giza sareetan?. Aurrez aurreko elkarrizketan?.
Ikasle bat umiliatzen dituen irainak entzun dizkiot talde bati.		
Neska bati beste bat edo beste batzuk mehatzatzen ari direla jakinaren gainean zaude.		
Mutil batek bere neska ohiaren kontrako mezuak zabaltzen ditu neskak harremana moztu eta gero.		

# IRAKASLERIA

## Testua irakurri

### **Genero biolentziarik, hobeto**

Emakumeek, batik bat, adingabe, nerabe eta gazteek pairatzen duten indarkeria, lehenasunezko gaia da hezkuntza-komunitatean. Delitu bezala ezagutzen diren salaketen mota biek (genero-indarkeria eta sexu-erasoa) azalerazten dituzten datuek gure arreta bereganatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, 2015. urteko urtarril eta abuztuaren artean, 759 salaketa jaso ziren 14 eta 30 urte arteko emakumeen aldetik, jasotako salaketen %29 izanik. Salaketa jaso dutenen erasotzaileen kasuan, %22a 14 eta 30 urte bitarteko adina dute. Sexu-erasoekin lotutako salaketei dagokienez, adin tarte horretako eta 14 urte baino gutxiagoko biktimen portzentajea %74ra igotzen da. Adin hauetako erasotzaileen kasuan, portzentajea %19koa da. Eta hauek identifikatutako eta salatutako indarkeriaren datuak baino ez dira, proportzio txiki bat baita, kontuan hartzen badugu badagoela azalerazten ez den indarkeria edo lagunei bakarrik adierazten zaiena.

Eskola ez da bakarrik ikaskuntzan eta garapen kognitiboan laguntzen duen espazioa; garapen emozionala garatzeko espazio erreal eta sinbolikoa da, baloreak jasotzeko, eta eskola barruan zein kanpoan jasotako baloreak zalantzan jartzeko lekua ere bada, bizitzeko modu ezberdinak alderatzeko espazioa, ikastekoa, zaintza eta enpatia lantzeko lekua. Gainera, espazio honetan pertsonen arteko erakargarritasunaz hausnartzen da, adiskidetasun harremanak eta afektibosexualak sortzerako orduan ezaugarri eta eredu ezberdinek zer nolako eragina duten aztertzen da; eskolan taldean bizitzen ikasten dugu.

Eskolan ere indarkeria forma ezberdinak gerta daitezke: umiliazioak, bultzadak, kolpeak, bazterketa, jazarpena... eta horregatik guztiatik, eszenatoki aproposa da ume eta nerabeei irakasteko euren burua eta besteena defendatu behar dutela, mina eragiten dutenak geldiarazi behar direla, mota guztietako ezberdintasunak errespetatu behar direla eta ezberdina dena ez dela baztertu behar. Eskola, sozializatorako espazio bezala, indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzeko sozializatorako espazioa ere izan behar du.

## Jarduerak:

3. Gelan testuari buruzko tertulia.
4. Ondorengo egoerei buruz gogoeta egin:
  - c. Banaka
  - d. Taldeka

Jazarpenak, indarkeriarekin zerikusia duten egoerak, interakzioak edo Indarkeria justifikatzen laguntzen duten interakzioak.	Deskripzioa. Egoera zehaztu eta definitu	Zer egin giza sareetan?. Aurrez aurreko elkarrizketan?.
Ikasle bat umiliatzen dituen irainak entzun dizkiot talde bati.		
Neska bati beste bat edo beste batzuk mehatzatzen ari direla jakinaren gainean zaude.		
Mutil batek bere neska ohiaren kontrako mezuak zabaltzen ditu neskak harremana moztu eta gero.		



# FAMILIAK

## Testua irakurri

### Genero biolentziarik, hobeto

Emakumeek, batik bat, adingabe, nerabe eta gazteek pairatzen duten indarkeria, lehentasunezko gaia da hezkuntza-komunitatean. Delitu bezala ezagutzen diren salaketen mota biek (genero-indarkeria eta sexu-erasoa) azalerazten dituzten datuek gure arreta bereganatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, 2015. urteko urtarril eta abuztuaren artean, 759 salaketa jaso ziren 14 eta 30 urte arteko emakumeen aldetik, jasotako salaketen %29 izanik<sup>5</sup>. Salaketa jaso dutenen erasotzaileen kasuan, %22a 14 eta 30 urte bitarteko adina dute. Sexu-erasoekin lotutako salaketei dagokienez, adin tarte horretako eta 14 urte baino gutxiagoko biktimen portzentajea %74ra igotzen da. Adin hauetako erasotzaileen kasuan, portzentajea %19koa da. Eta hauek identifikatutako eta salatutako indarkeriaren datuak baino ez dira, proportzio txiki bat baita, kontuan hartzen badugu badagoela azalerazten ez den indarkeria edo lagunei bakarrik adierazten zaiena.

Eskola ez da bakarrik ikaskuntzan eta garapen kognitiboan laguntzen duen espazioa; garapen emozionala garatzeko espazio erreal eta sinbolikoa da, baloreak jasotzeko, eta eskola barruan zein kanpoan jasotako baloreak zalantzan jartzeko lekua ere bada, bizitzeko modu ezberdinak alderatzeko espazioa, ikastekoa, zaintza eta enpatia lantzeko lekua. Gainera, espazio honetan pertsonen arteko erakargarritasunaz hausnartzen da, adiskidetasun harremanak eta afektibosexualak sortzerako orduan ezaugarri eta eredu ezberdinek zer nolako eragina duten aztertzen da; eskolan taldean bizitzen ikasten dugu.

Eskolan ere indarkeria forma ezberdinak gerta daitezke: umiliazioak, bultzadak, kolpeak, bazterketa, jazarpena... eta horregatik guztiagatik, eszenatoki aproposa da ume eta nerabeei irakasteko euren burua eta besteena defendatu behar dutela, mina eragiten dutenak geldiarazi behar direla, mota guztietako ezberdintasunak errespetatu behar direla eta ezberdina dena ez dela baztertu behar. Eskola, sozializatorako espazio bezala, indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzeko sozializatorako espazioa ere izan behar du.

## Jarduerak:

5. Gelan testuari buruzko tertulia.
6. Ondorengo egoerei buruz gogoeta egin:
  - e. Banaka
  - f. Taldeka

Jazarpenak, indarkeriarekin zerikusia duten egoerak, interakzioak edo Indarkeria justifikatzen laguntzen duten interakzioak.	Deskripzioa. Egoera zehaztu eta definitu	Zer egin giza sareetan?. Aurrez aurreko elkarrizketan?.
Ikasle bat umiliatzen dituen irainak entzun dizkiot talde bati.		
Neska bati beste bat edo beste batzuk mehatzatzen ari direla jakinaren gainean zaude.		
Mutil batek bere neska ohiaren kontrako mezuak zabaltzen ditu neskak harremana moztu eta gero.		

# EKITALDIA

- Puntu lila erraldoia osatu

*Biolentziarik gabe, hobeto* lelopean ikasle, irakasle, guraso, giza eragile guztiek egindako ekarpenak (egindako leloak, adostutako jokabideak, iradokizunak...).

- Mezu batzuei argazkiak atera eta partekatu ikastetxe giza sareen bidez
- Ikastetxeko blogean, sitean, webean... ipini hezkuntza komunitatearekin partekatzeko.
- Bertsolaritza txapelketa egin ***Biolentziarik gabe, hobeto*** leloarekin.

